

“ Zaintza gure gizateriaren urrezko araua da, eta osasuna eta itzaropena dakartza berekin. Gizarte osasuntsu batek guztion osasuna zaintzen du.

—Frantzisko Aita Santua

Zaintzen duen gizarteak, duintasunez, berdintasunean eta harmonian bizitzea ahalbidetzen du. Lanak ere sormena bultzatuko du norberaren izakera, gainerako pertsonak, natura eta Jainkoa orekan badaude.



www.hoac.es/cuidareltrabajocuidarlavida

Informazio-estaldura

 Kronikak, erreportajeak, elkarrizketak...

 Deialdien agenda

 Hausnarketa- eta iritzi-artikuluak:

 www.noticiasobreras.es

**noticias
obreras**

eta zu, parte hartzerara animatzen zara? Jarri harremanetan elizbarrutiko Hoac-ekin:



Zertan datza kanpaina?

Kanpaina honetan langileen eta lanaren munduari adi begiratzen diogu, samurtasunetik eta itxaropenetik; zaindu, indartu eta eraldatu beharreko hainbat alderditatik garatuko dugun gai jakin batean oinarrituta.

Kanpainak, kristau eta langile komunitatea plazaratzeaz gain, lanaren duintasunaren eta lan duinaren aldeko borrokan dugun konpromisoa ere ikusgai jartzen du.

Non eta norekin garatuko dugu?

Kanpainak langileen munduarekin bat egiteko guneak sortu nahi ditu, bertan, errealitate hurbilenetik bizitza elkarrekin partekatzeke. Bizi garen eta lan egiten dugun leku guztietan (familia, lantokia, parrokia, lagunak, auzoak, herria...) gauzatzea nahi dugu bereziki egunero harremanak ditugun pertsonekin.

Nola garatu nahi dugu?

Beste pertsona, talde eta erakunde batzuekin (sozialak zein elizakoak) bat eginda egon nahi dugu, langileek eta euren familiek bizi dituzten egoerei buruz hausnartu eta hitz egin ahal izateko, gertatzen zaiena eta zergatia hobeto ezagutzeko.

Langileen bizitzan lagunduko duten gizarte- eta anaitasun-prozesuak garatuz, pentsamoldea aldatzen lagundu nahi dugu, modu horretan, kolektiboki lana ulertzeko eta pertsona eta gizartea eratzeko beste modu bat eskainiko duten alternatibak bila ditzagun.

Loturak sortuz gero, harremanek elkartasun-, lankidetzaz-, komunikazio- eta informazio-sareak ehuntzen dituzte. Elkar ezagutzeak, entzutea eta zaintzea dakar, baina baita horren ondorioz sortzen diren interesak eta loturak bizirik mantentzeko erantzukizuna ere.

Iragarri eta salatu. Iragarri lan duina funtsezko elementua dela giza duintasuna garatzeko eta ekonomiak pertsonaren zerbitzura egon behar duela.

Prekarietatearen, langabeziaren, desberdintasunaren, pobretzearen, segurtasunik ezaren eta lan-esploatazioaren bidegabekeria salatu.

Bizitza ospatuz, gizarte gizatiarrago, bidezkoago eta berdinzaleago baten eraikuntzan urratsak ematen joan nahi dugu.

Benetako balioa izan dadila pertsonaren duintasuna, eta lana, maitasuna eta zaintza adierazteko bidea; gure konpromisoa eta beste askorena ere elkarrekin ospatuz, langile munduko ahulenak eta pobretuekin direnekin batera, Jesukristori jarraitzeko gure hautua eginez.



Zaindu lana, zaindu bizitza

“Gizarte osasuntsu, inklusibo, zuzen eta bakezalea eraikitzeke, denon ongia izan behar da giltzarria. Guztion ongia harkaitz bat bezalakoa da. Eta hau, gu guztion zeregina da, ez espezialistaren batena bakarrik.”
—Frantzisko Aita Santua

«Zaindu lana, zaindu bizitza»

goiburuarekin, lanean eragin nahi dugu guztion ongiaren ikuspegia kontuan hartuta. Horrek zer esan nahi du?:

- ⚙️ Pertsona bakoitzaren eta komunitate bakoitzaren sustapena, berdintasunean eta justizian oinarrituta egin behar dela, haien eskubideak eta bokazioa errespetatuz.
- ⚙️ Ongizatea eta gizarte-garapena bultzatzeko, pertsona bakoitzari bere aurrerapen material, kultural eta espiritualak erraztu behar zaiola.
- ⚙️ Lehenetsuneko aukera pobretuen alde egitea izan behar dela, komunitateko bizitzan parte har dezaten sustatuz.
- ⚙️ Pertsonak beraien lantokian egonkortasuna eta segurtasuna izan dezatela.
- ⚙️ Jasangarritasuna, denon etxea errespetatzeko bizitza eta natura zainduz.

Lana zaintzea da lana duintasunez egitea ahalbidetzen duten baldintza guztiak zaintzea, barnekoak zein kanpokoak.